

Euskal abesti barria

BARRI LABURRAK



URRETINDORRAK. «Aitor'en hizkuntza zaharra» abestiarekin, euskal diskoen artean 1969'ko lehenengo hiruilabeteen gehien saldu dana.

- Vaticano irratia euskal abesti barriak zintan hartu dauz. Abesti honeik hiru euskal disko barrietaoko dira: Lertxundi, Estitxu ta Argotia'renak.
- Formosa'n, Argaitia'en «Ame» abestiak exito handia izan dau. Hau diñosku Hsinchu'ko Catholic Church'etik, karta baten, Etxebarria aita jesuitak. Hango hizkuntzara bihurtu dabe.
- Estitxu, Mexico'n dago. Hillabete birako joan zan, eta ba daroaz bost Ameriketako lurraldeetan. Eta ondiño ez dauka etorrikerik.
- Euskalherri'ko Abestiaren IV Sariketa, barriro martxan dago. Noizko? Laister barriak.
- Salome'k euskeraz abestuko dau «Kantari bizi naiz» (Vivo cantando). Laguntzaileak, Azkoiti'ko Kontrapuntoak.
- Bittor Egurrola'ren lehenengo diskoa kalean dago. Protestakoa. Ta zelako protesta! Unibersitario honeik!...
- Gernika'ko «Naikari» orkestat Bilbo'ko irratietan abestu dau, bere lehenengo diskoaren presentazioa dala ta. Faustino Arrieta'k goi maillaraño Igon dau orkesta hau ta bere bitartez, «sala de fiestas» hoberenetan sartzen da euskereaa.

XABIER GERENO



EUSKAL JAIA LOBAINA'N

Ehun bat euskaldun artoan zai (Lobaina'n ikasle gehienak), eta euskal dantzariak eta txistulariak agertu dira zortzietan. Txaloak ugarri, eta festa hasi da.

Auprkezpena hiru hizkuntzatan Agirre euskaldun ikasleak egin du: flamenkeraz aurrenik, frantsesez segidan eta euskeraz bukatzeko. Entzuleok oso pozik, eta hirrikan. Atzerriak azkartua, euskal "gorosuaia" sarkorrako egiten bide zan.

Txalo jo dugu behin eta berriz gure dantzak ikustean, eta bihotzean, Legaralde jaunak, 71 urtetan, txistu jotzeari eta Gernika-taldean zuzentzeari ekiten die kementsu oraindik. Gure Hendaia-arrak zorianak merezi ditu zalantzarik gabe: gutxi egin du berak hainbat lan Paris'en bizi diran euskaldunen artean.

Gernika-taldeko kantariak ere entzun ditugu. Gure herriko kanta

zaharrek, bi alderdietako euskaldunek emanak, berriz ere hunkitu gaituzte Lobaina'ra bildutako guziok. Hunek ez du dudarik.

Baina Maite Idirin gitarra besotetan agertu danean, gure zauskadda bestelako egin da: iraganetik gaurerera pasa gera, liturjiatik bizira. Bere abots gardena maillatu dugu, egia da. Baina bere esanek, bere hitz berrituz, inarrosi egin gaituzte. "Hauxe da gure egia". Batzutan legun, bestetan zakar, Maite Idirin'ek gure herriko zantzia ekarri digu bizi-bizirik: eta bere kanta-saioa bukatu danean, laburxo izan ote dan pentasut dugu denok. Zorionak zeberriotar jatorrari.

Gero Benito Lertxundi famatua agertu da. Gitarraz ongi mugusiturik, tauladoaren jabe, horrelakotan ohitua, ausarki eman dizkigu ezagutzen genituen bere kanta batzuk, eta ezagutzen ez genituen beste batzuk ere bai. Maitasunezko kantetan aski ditu Lertxundi'k gitarrazko nota xoil batzuk, giroa egokitzeko: bere arrakasta ongi ulertu dugu. Lertxundi artista da. Besteetan ere, "Zerbat gera" ezagunean esate baterako, gogorki mintzatu zaigu, guztiz beste modu batera; eta gomentzitu egin gaitu. Gogotik jo diogu txalo.

Bukatutakoan zer pentsatu ote dugu entzuleok? Berdintsu, nere usitez; eta hauxe gutxi gora behera: Maite Idirin eta Benito Lertxundi dirala gure gazteriaren abotsa; eta hortatxek datorriela beren arrakasta osoa. Gauza bera, noski. Xabier Lete, Mari Lurdes Iriondo, Mikel Laboa eta gainerakoak.

Alegia, aspaldiko dantzetan eta kantetan, aspaldiko gure herriaren zantzia ageri da. Joan zan Euskal Herria gogoratzen zaigu: eta errespetuz, maitagunez, amodioz, entzu-

ten ditugu. Iraganari egiten diogun gorazarrean, gure bihotzaren parte bat dago. Baina iraganaren zantzia diranez, hain zuzen, urrutitasuna darie; eta, beharbada, itxurakeria apur bat: azkeneko dantza bukatu bezin laister, dantzariak gehienek erderari ekiten diote eta, sentidu askokotara, teatro-aldiari uzten diote erabat.

Maite Idirin eta Benito Lertxundi entzutean, alderantziz, gure odol mintzo bide da beren ahotik, gure anaiak ikusten ditugu tauladoan (eta tauladotik iriztean!), geure abotsa ixarritzen bide da beren ezrrietatik. Bat gatoz osotara. Anaitasun-giroa ez da errespetuzkoa, ez da leihaltasuna berez dator, naitasun beroa da. Maite eta Benito gure herriko lekuko dira arunt, eta beren ekintzan ez dago arauidurarrik: bat dira tauladoan eta tauladotik at.

Gauza bera gertatzen da, nik usate, jazerari dagokionez. Folklorean erabiltzen diran jazerak, artifizialkeri-giroa ematen diete dantzari. Urrutikeria sortzen da dantzarienta ikusleen artean. Eta aski da, zoritxarrez, dantzaritaskoren txepelatasuna, dantza horietan askotan (ez beti, kontuz!) teatro-aldi bat ikus ahal izateko.

Maite Idirin eta Benito Lertxundi, berriz, geure jazeraz jantzarik, geure anai-arreba ikusten ditugu begien aurrean, geure hizkuntzaz egiazki ari (tauladoan eta tauladotik at), geure arazoez kezkatutik, geure ametsen esale jator. Hori dala-ta, egiazkotasun-dei bat dira folklore-inflazioan; eta zorianak bilitz-bihotzez bizial nahi dizkiet.

Zerok hunkitzen gaituzte gaur inorik ez bezela. Ez zalantzarik izan. Eta ekin aurrera!

LARRESORO

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Vitoria)

gizon bat behar dut sortu:

gorputza zabal
burua zapal,
ardoan duala indarra
zeruan betiko segurantz
eta ohean gaurko atsegina.
atsegin itsugarria!!!
lillugarria!!!
zorion bakarra.

begirik gabe, ikus ez dezan;
aurpegirik gabe, ikusia izan ez dedin;
beso motza ta anak lurraldi josita,
hunki ez dezan, mugi ez dadin.

orrotz batez elbarrituko diot mingaina,
poltsikuan eramango du bihotza
eta oinetan adimena.

ondoren,
buruan sartuko diot erloju haundi bat
egin dezan beti tik-tak, tik-tak...
eta alditan tirin-tarran, tirin-tarran...

ina honela
mateonbat

bizitzen dan aske,
egiten lo lasai ta aski
eta bere larrua ez dan
ifioiz izaten astindua

honelakoak
baidituzte gaur egun

urrez eta izarrez
beren soinak jastan
eta beren buruak
diamantez hestutzen...

hoiek...
hoiek baidira haiek.

harzabal

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak. Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

